

Mendebalaren eta ekialdearen artean: goi-nafarrera zaharraren azterketa diakronikorantz

Urtzi Reguero Ugarte

UPV/EHU

Laburpena

Lan honetan, laburki bada ere, 1750 aurreko goi-nafarrerazko testu zaharretako hainbat ezaugarri, eskusiboak eta ez-esklusiboak, aztertuko ditugu bilakabideen kronologia ardatz hartuta. Lehen testuak agertzen hasten direnerako, goi-nafarrera dialekto beregaina bide da, baina, ikusiko dugunez, egun eskusibotzat ditugun hainbat ezaugarri, artean garatu gabe zeuden. Hori dela eta, ezaugarri ez-esklusiboen konbinazio eskusiboa kontuan hartzea izan liteke euskalkia definitzeko modua.

0. Sarrera*

Ibon Sarasolaren gorazarre liburu honetan gure ekarpen xumea egin nahi dugu, eta horretarako goi-nafarrera arkaiko eta zaharra izango ditugu mintzagai, dialektologia diakronikoa ardatz harturik. Alegia, 1750 aurreko goi-nafarrerazko testuek¹ erakusten dizkiguten ezaugarri zenbaitez arituko

* Lan hau eskuartearen dugun beste lan mardulago baten, hau da, doktorego tesiaren parte da. Hemen biltzen duguna hangoa esan nahi dugunaren aurrerapen / laburpen bat besterik ez da. Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) 2010/2011 ikasturtean lau urtetarako emandako Iker-tzaileen prestakuntzarako laguntzari esker burutu ahal izan da (kodea: PIF10/2010/ PIF10017). Halaber, UFI11/14 erreferentziadun UPV/EHUko formazio eta ikerketa taldearen eta MINECOk finantzatutako «*Monumenta Linguae Vasconum* (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (kodea: FFI2012-37696) proiektuaren baitan egina da gure lana.

Eskerrak eman behar dizkiet Ricardo Gómezi, Eneko Zuloagari eta Iñaki Caminori lan honen aurreko bertsioak irakurri, iruzkindu eta egindako ohar eta zuzenketengatik. Esan beharrik ez da dauden akats guztiak nire-nireak direla.

¹ Lan honetarako baliatu ditugun 1750 aurreko testuen jatorrizko bertsioetara jo dugu, eta erdi prestatuak ditugun edizioetan oinarritu gara, salbu eta 1750eko eliz aginduaren Orrioko aldera (Satrustegi 1987) eta 1729ko sermoia (Ondarra 1981), oraindik ez baitugu originalik edo horien digitalizaziorik ikusteko abagunerik izan. 1750 ostekoetarako, aldiz, edizio ezagunak baliatu ditugu: Markotegiren sermoia (Knörr 1992), Joakin Lizarraga (Ondarrak paratu edizioak), Juan Martín Iberokoa (Ondarra 1996) eta Martínez de Morentin (Lecuona 1973); Mikelestorenaren adibideak ateratzeko *Liburuklik* atarian digitalizaturik dagoen alea erabili dugu: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/8886>.

gara. Bi atal nagusi izango ditugu: batean goi-nafarrera arkaiko eta zaharrak dituen ezaugarri ez-esklusiboez arituko gara (§1), dialektoa kokatzen lagunduko digulakoan.² Bestean goi-nafarrerak dituzkeen ezaugarri eksklusiboez mintzatuko gara (§2); betiere, ezaugarriak ikuspuntu kronologiko³ eta diakronikotik begiratuko ditugu.⁴ Amaieran (§3) hainbat ondorio aurkeztuko ditugu.

Bonapartek (1869 [1991]: 226) bere sailkapena egitean, hiru multzotan bildu zituen euskalkiak: A multzoan bizkaiera sartu zuen (mendebaleko Gipuzkoako hizkerak barne), B multzoan lapurtera, gipuzkera eta ipar eta hegoaldeko goi-nafarrerak bildu zituen eta, azkenik, C multzoan zuberera (erronkaria barne) eta ekialdeko eta mendebaleko behe-nafarrerak (zaraitzua eta aezkera barne) batu zituen.⁵ Hitz bitan: goi-nafarrera⁶ erdialdeko hizkeratzat zekusan printzeak.

XVI-XVIII. mendeetan mintzatu zen goi-nafarrera Bonaparte baino askoz lehenagokoa izan arren, erdiguneko dialektoa zen orduan ere; beraz, euskalki hau ikergaitzat hartzean berezitasun hori oso kontuan izan behar dugu; bai, halaber, izate horrek sortzen dituen arazo bereziak, ertzetakoek ez dituztenak:

Bestetik, ezin atzendu da, hizkera hau geografikoki guztiz erdialdekoa dela eta erdialdeko hizkerak, usu eragin lektal anitzen menpe egoten direla; eremuotan neke izaten da dialektoak bereiztea: hizkuntza-ezaugarriak, nahaska, gorde-ezkutuka edo jauzika bezala ageri zaizkigu, ez erarik koherenteanean bateraturik. Hizkuntza-ezaugarri batzuk hemen hasten dira, ezaugarri hauetarik batzuk horragoxe bukatzen, tartean beste berri batzuk sortzen zaizkigu, besteren bat desagertzen zaigu: hizkuntza-ezaugarrien konbinazio ge-

² «Dialekto bakar baten berrikuntza eksklusiboak ez baldin badira, berrikuntza zenbaiten konbinazio eksklusiboa da dialekto bat definitzeko erabil litekeen argudioa, orain arteko ikuspegiaren bederen» (Camino 2008: 218).

³ «Dialektologiaren dihardugunean kronologiaren jardun behar dugu baitezpada, hizkuntzaren historia eta dialektoen azterketa uztarturik baitaude. Alderdi kronologikoari dagokionez hizkuntza-ezaugarriak bereizteko ohiko sistemari heltzea gauza beharra du dialektologiak: zuzen eta bidezko da ezaugarriak *berrikuntza / hautu / arkaismo* banaketaren arabera aztertea» (Camino 2008: 209).

⁴ Lanaren tamaina murriztu beharrak lana bera asko mugatu du eta, ondorioz, goi-nafarreraren historia ulertzeko garrantzitsuenak izan litezkeen ezaugarriak hautatu ditugu, gehiago egon litezkeela badakigun arren.

⁵ Interesgarri dirudi Bonapartek bereizitako multzoek hizkuntza ezaugarrien justifikazio-rik balute, azalpen diakroniko bat ematea eta balizko zuhaitz genealogiko bitarrean (ik. Camino 2008; Lakarra 2011) multzo bakoitza non koka litekeen zehaztea: AB-C / A-BC. Alegia C multzoa izan zen lehenik bereizi zena AB-tik ala, aitzitik, A izan zen BC-tik bereizi zena? Ez bide du zentzurik proposatzeak bereizten lehena B izan zela eta AC-k multzo bat osatu zutela, iragazki geografikoa ez bailuke pasatuko; cf. orain Camino (2011) eta Lakarra (2011). Lapurtera eta goi-nafarrera erkatzen dituen azterketa interesgarriko, ik. Camino (2013).

⁶ Izatez, Bonapartek bi goi-nafarrera beregain bereizi zituen, iparraldekoa eta hegoaldekoa. Nolanahi ere, oraingo joerari jarraituz (ik. Camino 2003, 2004) dialekto bakartzat hartuko dituguk.

hiegi eta zinez konplexuak ageri dira gure begien aitzinean: eremuak elkar-gainka jartzen zaizkigu (Camino 2004: xiv).

Euskal Herriaren erdigunean hitz egiten den dialektoa izanik, euskalki askorekin egin izan du edo egiten du muga: mendebalera Gipuzkoako eta Arabako euskarak ditu, iparraldean nafar-lapurtera eta ipar-ekialdean zaraitzua eta erronkaria. Bestela esanda, zuberera eta bizkaiera dira zuzenean goi-nafarrerarekin muga egiten ez duten euskalkiak. Erromantzeen pisua ere (gaztelera, nafar erromantzea edo okzitaniera izan) nabarmena izan da Nafarroako historian. Kokapen geografiko eta linguistiko horrek, ezbairik gabe, bere marka utzi du goi-nafarreran.

1. Goi-nafarreraren berrikuntzak eta hautuak: ezaugarri ez-esklusiboak

Erdialdeko izate horrek eragin du, beharbada, XVI-XVIII. mendeetako goi-nafarrerak ezaugarri eskusibo askorik eta ongi finkaturik ez izatea.⁷ Ezaugarri ez-esklusiboek nekez lagun dezakete dialekto bat definitzen, ez bada beste ezaugarriekin konbinazio eskusiboan (Camino 2009: 336). Hainbat ezaugarri eta, bereziki, horien konbinazioak nolakotasun berezia ematen diote dialektoari. Goi-nafarrera erdialdeko mintzoa izanik, interesgarri dateke inguruan dituen dialektoekin partekatzen dituen ezaugarriak aztertzea, bilakabide historikoa ezagut dezagun. Jarraian aurkezten ditugun ezaugarriak goi-nafarrera zaharreko hizkera guztietan agertzen dira, hizkera horren izaeraren parte dira, ezbairik gabe; baina, ez dira eskusiboak: beste dialektoekin partekatzen dituen ezaugarriak dira. Nolanahi ere, zerrendatutako ezaugarriak goi-nafarreraren dialektalizazioa ulertzeko lagungarri izan litezke.⁸

1.1. Mitxelenak (1961: 205) iradoki zuenez, hasperenaren galera Nafarroan hasi zen eta bertatik hedatu bide zen Hego Euskal Herri guztira: «Es altamente probable que la pérdida comenzara por la Alta Navarra, en contacto con el romance aragonés que no tenía *h*, y en la mayor parte de esa región era ya un hecho consumado en el siglo XI». Beste lan batean erakusten ahalegindu garenez (cf. Reguero 2013), Erdi Aroko lekukotasunetan XIII. mendetik aurrera ez da hasperenik ageri. Nolanahi ere, berrikiago Julen Manterolak⁹ erakutsi du Nafarroako idatzietan agertzen diren XVII. mendeko testuetako <h> batzuek hasperena isla zezaketela; areago, Beriainen lanetako

⁷ Egun goi-nafarrerak dituen ezaugarri eskusiboak, gainera, ez bide dira oso zaharrak, georago ikusiko dugunez.

⁸ Noski, emandakoez gain badira ezaugarri gehiago ere lan honen orrialde kopuruagatik kanpoan utzi behar izan ditugunak. Besteak beste, *-r(t)z-* mantentzea edo *-te* pluralgilea izan litezke ezaugarri ez-esklusibo, baina dialektalizazioa ulertzeko baliagarriak.

⁹ Gutxi barru aurkeztu behar duen tesian dakar.

<h> batzuk ere hasperentzat hartzen ditu. Ondorioz, goi-nafarrera arkaiko eta zaharrea hasperenaren aztarnak aurki litezke, baina galtze bidean (eta leku askotan galdurik) legoke ordurako hasperena. Beraz, hasperena ez izateak, edo emankortasuna galdurik izateak, goi-nafarrera arkaiko eta zaharra Iparaldeko dialektoetarik bereizteko balio lezake.¹⁰

1.2. Ekialde zabaleko hizkeren ezaugarri nabarmenatariko bat bizidunekin postposizio sintagmak sortzeko erabiltzen duten forma da. Inoiz *-gan* atzikia orokorra izan zen, mendebalean eta ekialdean lekukotzen baita aspaldidanik. Goi-nafarrerari dagokionez, bi formak agertzen dira hasiera-hasieratik; *baita-* daraman egitura bestea baino berriagoa izan arren, lehen lekukotasunetik bertatik lekukotzen da: *erregue baytaric* dator xv. mendeko gutun batean eta *E[spiritu San]dua baytan* xvi. mendeko katixima batean. Hala ere, mende berean oraindik forma orokorra ere lekukotzen da; adibide hauek ditugu, besteak beste: *aur noble onengana* Henrike Borboikoari egingdako koplan, *ene anima Jayncoagana beldurrequi partituric* Amenduxen bertsoan, *Jayo çan Maria virgiñaganic* Aresoko otoitz zaharretan.

xvii. mendean Beriainek bi aldaerak erabiltzen ditu era berean: *baytatic & baytan*, *guregana*, *berceanganic*. Mende honen hasierakoa den Zannetoren kredoan, ordea, *vaytan* eta *vaytatic* formak agertzen dira. 1699an Elizalde idatzitako gutunean kasuaren adibide bakarra dugu, eta *-ganic* forma arkaikoa ageri da: *zureganic*.

xviii. mendeko lehen erdiko sermoietan zein Elizalderen dotrinan *baita*-usu agertzen da, baina *-gan* erabiltzeko joera handia da: *jangoycoaren baytan*, *gureuren baytan*, baina *virginarenganic*, *zuregana* ditu, esaterako, Elizalde.

Aztergai ditugun hiru mende hauetan joera bera ikusten da. Ekialde zabaleko berrikuntza komuna garai guztietan lekukotzen da, menderik mende, maiz lekukotu ere. Baina *-gan* forma zaharra duten adibideak ere ugari dira.

Laburbilduz, lehen lekukotasunetik agertzen da, esaterako, bizidunen ablatiboaren *baytaric*; baina xvi, xvii eta are xviii. mendean *-ganic* aldaera zaharra ere maiz lekukotzen da. 1750 aurretik aurkitu ez dugun adibidea *baita*-ren gainean eraikitako adlatiboa da; bizidunen adlatiboa dagoen kasu guztietan *-gana* agertzen da. Geroxeagokoa den Lizarraga Elkanokoak (1983) ere *baita-* gisakoak nasaiki erabiltzen ditu, baina ez dugu *baitara* daraman adlatiborik aurkitu eta beti *-gana* erabiltzen du. Mendiburuk, aldiz, baditu gisa honetako adibideak, *itzulcen baciña cere baitara* esaterako; baina ez dabil beti aldaera hau, *-gana* ohikoagoa baita bere idatzietan.

¹⁰ Dena dela, ik. Lakarrak (2011: 173) berrikuntza negatiboez ari zela egin oharra: «Adibidez, GN-k /h/a x. menderako galtzea berrikuntza dugu, bai, baina horregatik ez digu asko balio dialekto hori gainerakoetarik bereizteko; gorde edo galdu, aukerak %50ean baitziren; are gutxiago, h-gabeko aldameneko erromantzeen eraginez izan bada galera, Mitxelenak iradoki bezala».

1.3. Ezagun denez eta sinplifikazio bat eginez, **edun*-en orainaldiko adizkiek duten erroaren arabera, euskararen eremua hirutan bana liteke: *dot / det / dut*. Bonapartek aski bide zuen *dut* gisakoak izatea euskara nafarra besteetatik bereizteko.¹¹

Hain zuzen ere, goi-nafarreraz idatzitako lehen testuetatik hasita, *-u*-errodun adizkiak agertzen dira: *arçen duc*, *arçen dut* (Uitzi, 1506), *ossasuna dugu guztiyeq* (izeba-iloben gutunak, XVII. mendea), *us eguiñen duzu* (Elizalderen gutuna, 1693). Hala ere, Berako olagizonaren gutunetan *dezu* aldaera agertzen da: *yzanen badezu*, baina nagusi *-u-* daraman aldaera da: *erran dudana*, *bidalcen dut*, *boronte baduzu*. Berako kasua Gipuzkoaren hurbiltasunak eragin lezake; alabaina, Gipuzkoatik gertu dagoen Goizuetako 1753ko sermoiak ez du *-e-* errodun aldaerarik; *-u-*dunak, aldiz, bai. Bestalde, Satrustegik argitaragabe utzi zituen Muruzabalgo sermoien artean «Nafarroako mendebalekoak» diratekeen sermoi sorta bat dago, XVIII. mendearen erdialdekoa direnak, eta hauetan *-e-*dunak eta *-u-*dunak agertzen dira. Nolanahi ere, interesgarri bezain beharrezko da oraindik argitaratu eta editatu ez diren sermoi hauek bere osotasunean aztertzea. 1606ko olerki sarituetan beti *-u-*dun aldaerak agertzen dira. Baztandar Mikelestorenak 1749ko idatzian *-e-* errodun ugari ditu, baina *-u-*dunak dira nagusi; 1777an Markotegi olloibartarrak ere *dezu* eta *duzu* erabiltzen ditu (Knörr 1992: 226).

1.4. N-N-N saileko adizkietako erro orokorra, euskalki guztietan inoiz ageri dena, *-i(n)-* bada ere, honen ondoan **eradun* ere agertzen da goi-nafarrerara arkaikotik aurrera, gipuzkera zaharrean eta Iparraldeko euskalkietan bezala. Goi-nafarreraz XVI. mendiaz geroztik lekukotzen da aditz laguntzaile hori; esaterako, Beorburu (1536) eta Olatzagutiako (1578) ezkontza hitz-emateetan *derauçut* dugu eta Gorritiko 1551ko afera batean *eguyten deraut* dago euskarazko esaldi batean. Beriainek adizki hau erabiltzen du, beti ere aldaera sinkopatua: *drauan*, *draugu*... Aldaera hauek ditugu, halaber, 1609ko Iruñeko lehiaketako euskarazko hiru olerki sarituetan: *draue*, *drauco*. Mende berean, urte batzuk geroxeago Berako olagizonak ere aditz laguntzaile hau zerabilen sinkoparik gabe: *otoy egiten derauçut*, *erran nerauzun*. XVIII. mendearen erdialdeko Goizuetako sermoian ere **eradun* agertzen da: *derazquiola*, *cerazquizon*, *cerazquiola*. 1750eko eliz aginduko Elbete eta Elizondoko aldaeretan *derabeztegrularic* daukagu, eta erro bereko dirudien *dabegu* (< **deraeugu*).¹² Ondoriozta liteke, beraz, Nafarroako ipar-hegotan erabiltzen zela **eradun*, baina ez da sistematikoa, alboan *-i(n)-* agertzen baita lekukotasun ia guztietan.

¹¹ «Ces cinq dialectes sont: 1. Le guipuscoan, caractérisé par *det*, *dezu* etc. 2. Le biscaïen par *dot*, *dozu* etc. 3. Le navarro-labourdin par *dut*, *duzu*, *naiz* etc. 4. Le bas-navarrais par *niz*, etc. —sans le traitement respectueux—. 5. Le navarro-souletin par le traitement respectueux» (Bonaparte 1867: 7).

¹² *Causatuco daucutela* (< **deraukutela*) ere agertzen da testu berean.

Caminok (2013: 106) adierazten duenez, Lapurdin *derau-* egiturak dip-tongo eta guzti iraun zuen, eta Nafarroa Beherean *derau-* > *darau-* gertatu da. Caminok (*ibid.*) dioenez, Beorburun 1536an eta Olatzagutian 1548an *derauçut* agertzen dira, baina «galduz eta soilduz joan ziren gero aldaerok». Nafarroan XVII. mendetik aurrera *derau* eta *drau* bi aldaerak agertzen dira, baina badirudi banaketa geografikorik izan lezaketela: sinkopadunak nagusiki Nafarroako erdi-hegoaldean agertzen dira, Beriainen idatzietan eta 1609ko olerkietan adibidez; aldiz, Bortzirietako, Baztango eta Goizuetako lekukotasunetan Lapurdi aldeko aldaera berbera kausitzen dugu, sinkopatu gabea alegia.

1.5. Euskaraz geroaldia egiteko erabiltzen diren morfemen araberako sailkapena egingo bagenu, hiru eremu bereiziko genituzke: *-go* & *-ko* / *-en* & *-ko* / *-en* & *-ren*. Ezagun denez, lehena mendebal zabalean erabiltzen da (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa); azken konbinazioa, bereziki, ekialdekoa da. Aldiz, erdialdeko zati handi batean (Lapurdi eta Nafarroa Garaian, batez ere) *-en* erabiltzen da, hasiera-hasieratik, *-n-z* amaitu partizipioa duten aditzekin; besteak beste, *emanen* dugu 1674ko Berako olagizonaren gutunean, *izanen tuc* 1694ko Artaxoko auzi agiri batean, *erranen* 1729ko sermoian. Hala ere, *esango* dugu Elizalderen 1693ko gutunean, *eguingo* eta *izango* ditugu Muruzabalen agertutako 1751ko sermoi batean, baina *juanen*, *izanen*, *inen* daude testu berean. Bestalde, egungo hizkera nafar ugaritan *-en* duten geroaldiko formek aldaketa jasan eta *izain*, *emain*, *esain* eta gisakoak dituzte. Berrikuntza hori XVIII. mendearen bigarren erdialdetik gertatu dela dirudi, lehenagoko testuetan ez baita halakorik agertzen, dakigula behinik behin. Gerora, ordea, ugaritzen hasten dira forma horiek: *essain* erabiltzen du, adibidez, baztandar Mikelestorenak 1749n idatzitako dotrinan, eta Juan Martin Iberokoak *joein*, *emein* & *emein* eta *egoin* ditu, baina baita *egonen*, *joanen* eta *emanen* ere (Ondarra 1996: 650). Alde horretatik, nabarmentzekoa bide da Satrustegik (1987: 70) argitaratu zuen XVIII. mende hasierako sermoi baten aldaera modernoago batean *izanen* → *izain* eta *emanen* → *emein* aldaketak egin zituela kopiagileak.¹³

Gainerako partizipioetan, sistematikoki *-ko* da goi-nafarrerera zaharrear agertzen den morfema; salbuespen bitxi gisa Amenduxen olerkia aipa daiteke, bertan *baturen* ageri baita. Salaberrik (1996: 94) aipatzen duenez, Nafarroako testu zaharretan ez da aurkitzen morfema hori, baina bi salbuespen ditugu: Amenduxena eta *etorriren da* XVIII. mende bukaerako Martinez de Morentin gesalaztarraren sermoi batean; hala ere, testu berean *egorrigo dituela* agertzen da.

¹³ Fray Felix Langarika izan liteke kopiatzailea, berak bildutakoan artean baitago. Egun Euskaltzaindiaren esku dago Muruzabalgo beste hainbat sermoirekin. Bihoazkio eskerrak Satrustegiren sendiari ikusteko eta ikerketan erabiltzeko baimena emateagatik.

1.6. Objektu zuzena genitibizatzea orokorra bide zen euskara zaharrean (ik. Lakarra 1983: 58, 1996: 191), eta horren adibideak topa daitezke mendebal zabaleko hizkeretan. Goi-nafarrera zaharrean ere ohikoa da egitura hori, baina absolutibodunak ere ez bide ziren arrotzak. Sanzberro etxalartarraren 1749ko dotrinan *il cen gure salbaceco* eta *vicien eta ilen iuscacera* datoz, baina *culpatic gu ateraceco* ere bada. Mende berean Elizalde eta aurreko mendean Beriainek ere TOGEN egitura erabiltzen dute.

1.7. Hurrengo bi ezaugarriak¹⁴ ez dira goi-nafarrera osoan ageri, baina iparraldeko aldaera hegoaldekoetik bereizteko balio dezakete. Azken honetan, sistematikoki sozietiboan *-requi* aldaera erabiltzen da eta iraganeko *-n* galdu egiten da. Bi ezaugarriok ez dira eskusiboak, *-requi* Oihenartek eta Etxeparek ere baitute, esate baterako; eta iraganeko marka Bizkaiko mendebaleko hizkera batzuetan ere galdu izan baita. Nolanahi ere, oso ezaugarri markatuak dira. Bereizketa hori zaharra bide da, lehen lekukotasunetatik agertzen baitira aipatu ezaugarriak: XVI. mendean Amenduxek dagoeneko *-requi* erabiltzen du adibide guztietan. Bestalde, XVII. mendean, 1609ko olerki sarituetan iraganeko *-n* marka galdu izan da, *guelditu ce*, *chipitu ce*, baina *eri çiran*; eta sozietiboan *urriquirequi* eta *damurequi* agertzen dira adibide gisa. Mende horretakoa den Beriainen *Meza enzuteco tratatuan -requi* da nagusi, bi kontradibide dituen arren, baina iraganean *-n* dago. Nolanahi ere, idazle jantzia izanik, zilegi da iraganeko *-n* nahita gehitu izana autoreak.

2. Goi-nafarreraren ezaugarri eskusiboen kronologia baterako

Dialektoak etengabe aldatzen ari dira; eta gaur hizkera bat definitzeko balio lezaketen ezaugarriek ez digute nahitaz XVI, XVII edo XVIII. mendeetakoak definitzeko balio. Bestela esanda, gaur goi-nafarrerazko ezaugarri eskusibo batzuk ez dira lekukotzen 1750 aurretik, eta lekukotzen badira gutxitan eta sistematikotasunik gabe lekukotzen dira; beraz, definitzen laguntzeko baliorik gutxi dute. Jarraian ikusiko ditugun ezaugarriak eskusiboak direla esan genezake, goi-nafarreraz usu agertzen dira eta egun bera definitzeko balio lezakete. Hala ere, ezaugarri hauen deskribapen diakronikoa egitea interesgarri bide da aztergai dugun dialektoa nola garatu eta osatu zen ezagutzeko.

¹⁴ Batera aurkezten baditugu ere, ez bide dute erlazio zuzenik, ez bada biak eremu geografiko berean bat egiten dutela eta azpieuskalki bat euskalki bereko beste batetik bereizteko balio dutela.

2.1. Zuazok (1998) egindako sailkapenean goi-nafarreraren ezaugarri esklusibotzat hartu zuen instrumentalaren aldaera apikaria. Caminok (2009: 348) ere gisa honetako ezaugarritzat hartzen du.¹⁵ Beste lan batean, ordea, Caminok (2004: 86-87) hauxe dio banaketa geografikoaz:

Instrumentaleko atzizkiko txistukaria apikaria da Nafarroako franko alderditan; Bidasoaldeko Bortzirietan, Malerrekan, Bertizaranan eta Baztanen bizkarkaria erabiltzen da eta ertzetan baita Burundan eta Zaraitzu-Erronkarietan ere, nahiz Zaraitzun inoizka apikaria ere entzun daitekeen. Goiti-Areso-Leitza-Goizueta-Arano alderdian ere bizkarkaria erabiltzen da. Apikaria, berriz, Sakanan Larraungo hizkera batzuetan, Basaburuan, Imotzen eta Ultzaman ageri da. Horien peko alderdian txistukaria bizkarkaria dugu hala Txulapaingo Nabatzen (*EI*), nola Ezkabarteko Maki-rriaingo XIX. mendeko kristau ikasbidean. Hego-nafarrerari dagokionez, Beriain eta Elizalde idazleek apikaria zerabilten soilik; Gesalazko idazkietan, apikariaz gainera bizkarkaria ere ageri da. Goñerrian, Oltza zendean, Olloibarren, Itzarbeibarren eta Eguesibarren ere apikaria zegoen. Artzibarren ere bai, baina *EI*-ko inkestetako erantzunetan bederen, bizkarkaria ez da ezezaguna; ekialdera, apikaria egiten da ia-ia beti Aezkoan. Esteribarren eta Erroibarren ere nagusi da apikaria, bizkarkaria duten adibideak ugari diren arren.

Garai zaharrenetara joz gero, testuak ez ditugu aipatu eskualde guztietakoak, baina egoera berdintsua dela dirudi. Askí zaharra da ezaugarri honen lehen lekukotasuna; hain zuzen ere, dakigunez, XIII. mendean agertzen da lehen aldiz instrumentala eta honen aldaera apikaria lekukotzen da: *gaiçes berme, ones berme (TAV 2.2.13)*. 1509ko Uitziko ezkontza hitz-ematean ere aldaera apikaria agertzen da: *eta hon eta leyal nayçaquaçula dudanas eta duquedanas*.¹⁶

Egun bezala, testu zaharretan ere ezaugarria ez da goi-nafarreraren eremu osoan agertzen. Iruñetik ipar-ekialdekoa dirudien 1729ko sermoian eta 1743ko garizumako sermoietan sistematikoa da aldaera apikaria. 1748ko garizumako sermoian apikaria da nagusi, baina salbuespen gisa *becatuz* ageri da. Urritzolakoa bide den bertsoan sistematikoki agertzen da aldaera apikaria. Aitzitik, Nafarroako ipar-mendebalean ez da aldaera apikaria eza gutzen; horren adibideak ditugu, esaterako, 1674-1676ko Berako olagizonaren gutunetan, 1751ko Goizuetako sermoian, Sanzberro etxalartarraren 1749ko dotrinan eta 1750ko Elizondo eta Elbeteko eliz aginduetan. Ezkabarteko Orrioko 1750eko eliz aginduan ere ez da inoiz apikaria ageri; bai, aldiz, bizkarkaria.

¹⁵ Egungo goi-nafarreran aldaera apikariak dukeen esklusibotasunaz gogoeta interesgarria dakar Zelaietak (2008: 188, 84. oin-oharra).

¹⁶ Beorburuko 1536ko ezkontza hitz-ematean *çuçaz* aldaera bizkarkaria agertzen da behin eta berriz.

Gaur egun aldaera apikaria egon ez arren, Leitzako apezaren auziko idatzian eta Aresoko otoitz zaharretan aldaera honen adibide bakanak ditugu: *partes* Leitzan eta *gucis* Areson; nolana ere den, ez da sistematikoa, ez batean ez bestean. Maiora Mendiak (2011) jasotzen duen Aresoko 1609ko auzi bateko agirian *obeas*, *bates* eta *gueyaos* agertzen dira.

2.2. XVIII. mendearen bigarren erditik aitzina, Nafarroa Garaian ugari dira adizki sinkopatuak. Joakin Lizarragaren (1802) laneko predikuetan *eztuztenei* (< 'ez dituztenei') eta *aipatzentú* (< *aipatzen ditu*) ditugu, besteak beste. Bonapartek (1869) ere bere aditz taulan hegoaldeko goi-nafarrerazko adizkitzat hartu zituen, hala nola, *tut*, *tuzu*, *tidazu*, *tiot* eta *tiguzu* gisako pluraleko formak. Sinkopa hori nahiko zaharra dela dirudi, eta lehena erakusten Amendux dugu: *ycuste tut*. Nolanahi ere, 1750 aurreko lekukotasunetan ez da maiz agertzen bilakabide hori. Agertzen diren gutxien artean hauek ditugu adibide: Berako olagizonaren gutuneko adibideak dira *tuzu* 'dituzu' eta *tidazu* 'ditidazu', 1729ko sermoian *vear tucie* 'behar dituzue' dugu eta 1750eko eliz aginduaren Orrioko aldaeran *manatcen tugu*, *erran tugun*, *encargatcen tugu*, *bereisten tugu*.

XVI. mendetik aurrera lekukotu arren, ez da XVIII. mendearen erdialdetik aurrera agertzen den maiztasunez agertzen; Beriainek esaterako ez du gisa horretako sinkoparik.

2.3. Besteak beste Zuazok (1998: 215) eta Caminok (2009: 348) goi-nafarrerazko ezaugarri eskusibotzat hartu dute N-N-N saileko *-zki-* pluralgilea *-it-* morfemak ordezkatzeari. XVIII. mende bukaerarako morfema pluralgile hori agertzen da, esate baterako Joakin Lizarraga Elkanokoaren kopletan: *ez ditio nai eman*. Aldaik (1999: 265-266) dioen bezala, Beriain eta Elizalderen testuetan ez da *-zki-* → *-it-* bilakabidearen aztarnarik kausitzen; eta, oro har, goi-nafarrera arkaiko eta zaharretan ez da halakorik maiz ikusten. Dituzkegun adibide bakarrenetarik, eta ziurrenik lehenak, Berako olagizonaren 1676ko gutunetan agertzen direnak dira: *bidaldu ditidazunac* eta *emanen tidazu*. 1750 arterainoko gainerako testu zaharretan ohiko *-zki-* atzizkia agertzen da, eta morfema hau dugu, halaber, Satrustegik argitaratutako 1756, 1758 eta 1769ko Ororbiako sermoietan ere (1987: 92, 96 eta 104); Markotegik bere dotrinan *-zki-* erabili ohi du, baina *dition* bat ere badu. Bistan dago, beraz, *-zki-* → *-it-* berrikuntza, analogiaz-edo, XVII. mendean sortu zela, baina aldaketa ez zen erabat orokortu XVIII. mende bukaerara arte.

2.4. Caminok (2009: 348) ematen dituen nafarreraren ezaugarrien artean, eskusibotzat hartzen du «joan» aditzaren *noaie*, (*g*)*oaie*, *doaie*. XVI. mendean badirudi bazirela gisa honetako aldaerak: *goaye arat* agertzen da Barasoingo 1593ko agiri batean. XVII. mendean Beriainek aldaera nafarrak darabiltza: *noaye* & *doaye*. XVIII. mendearen lehen erdiko sermoietan ere gisa horretakoak ditugu.

3. Ondorioak: kokapenerantz

Dialekto bat zenbat ezaugarrik definitzen duten erantzutea ezinezko den galdera da, ezaugarri guztiek ez baitute pisu bera. Arestian hainbat ezaugarri ikusi ditugu, eta ustez goi-nafarrera zahar eta arkaikoa definitzen lagun lezaketete, gehiago ere badiren arren. Ikusitako ezaugarrietarik batzuk ez dira esklusiboak inguruko euskalkietan ere agertzen baitira; erdialdeko eta ez bazterreko dialektoa izanik, ezaugarri bereizgarri gutxi dago; beraz, Caminok (2009: 347) dioenaren ildotik, ezaugarrien konbinazio esklusiboa da goi-nafarrera zaharra besteetarik bereizten duena. Eta esan beharrik ez dago goi-nafarrera lekukotzen hasten denerako dialekto beregaina dela, bere ezaugarri esklusiboekin eta ez-esklusiboen konbinazio esklusiboarekin.

Bestalde, kontuan izan behar dugu 1750 aurreko testu kopurua oso mugatua dela, bai kantitate aldetik bai testu mota aldetik. Nagusiki, erlijio testuak dira: sermoiak eta dotrinak. Horrek asko mugatzen du ezaugarri kopurua, ezbairik gabe. Egia da 1750etik aurrera lekukotasun kopurua ugari egiten dela; ez, alabaina, testu moten kopurua, orduan ere sermoiak baitira nagusi. Nolanahi ere, XVIII. mendearen erdialdean aldaketa kualitatibo nabarmena dago, eta ez dirudi nahitaez Larramendik eta bere jarraitzaileek eragin-dakoa denik. Ez dugu testu guztien alderaketa sistematiko eta zehatzik egin, baina lehen eta bigarren begi kolpean XVIII. bigarren erdiko testuek lehen erdikoek ez dituzten berrikuntza ugari dituzte. Besteak beste, goi-nafarrerazko hizkera batzuetan ohikoa den $u_a > u_e$ eta $i_a > i_e$ bilakabideak ez dira gertatu 1750 aurreko testuetan eta hau lagungarri izan liteke urte jakinik gabeko testuak datatzeko;¹⁷ ondoko urteetan, ordea, maiz agertzen da eta aski modu sistematikoan.

Gauza bera esan dezakegu datiboko *-agi / -egi* dela eta. Nafarroako hego-mendebalekoa bide den ezaugarri hau (cf. Camino 2004: 74) ez da 1750 aurretik lekukotzen; aldiz, XVIII. mendeko 50eko hamarkadatik aurrera ugari ditugu adibideak: pluraleko *baçuegui*, *fielegui* eta singularreko *Jesusegui*, *io-regui* eta *eribetegui*, baina behin *tristeari*, dakartza, besteak beste, Juan Martin Iberokoak 1755eko sermoian (Ondarra 1996). 1751koa den Muruzabalen agertutako sermoi batean ere *amegui*, *lagunegui* eta *vezinoegui* ditugu. Lehenagoko testuetan, ordea, ez dugu halakorik aurkitu.

Ondorioz, badirudi goi-nafarreraren periodizazio bat egingo bagenu XVIII. mendeko erdialde horretan bi garai bereizteko arrazoi aski sendoak badirela, eta ez bakarrik Larramendiren eragina iristen hasia zelako, Juan Martin Iberokoaren edo Mendibururen lanetan atzeman litekeenez, edo Mikeles-

¹⁷ Satrustegik (1987: 50) XVII. mende bukaerakotzat du Urritzolako olerkia, baina $u_a > u_e$ sistematikoa duen testu bakarra litzateke eta, bestelako ezaugarriak kontuan izanda (grafia, kasu), Satrustegik esandakoa baino mende bete geroagokoa izan litekeela pentsatzeko arrazoirik badugu.

torenaren kasuan bezala Larramendirekin zein Mendiburekin harremanak bazeudelako. Esan dugun bezala, hizkuntzako ezaugarrien artean bada aldea batetik bestera, eta hori azertzeak, ziur, lagun lezake goi-nafarreraren historiaren nondik norakoak ezagutzen. Bada, beraz, nondik heldu.

Hasieran, (§1) atalean aurkeztu ditugun ezaugarriak hedadura zabalekoak dira; ondorioz, zaharrak direla pentsatzeko arrazoiak badaude. Gainera, ezaugarriok iparralderagoko eta ekialderagoko hizkerekin bat egiten dute nagusiki; beraz, badirudi antzina goi-nafarrerak batasun handiago zuela eremu honetako hizkerekin ezen ez mendebaleragokoekin. Hortaz, euskararen dialektoen balizko zuhaitzeko banaketa bitarrean, zein kokagune izango luke goi-nafarrerak? Mendebaleragoko Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako mintzoe-kin lihoake? Ala (ipar-) ekialderago dituen Zuberoa, Erronkari, Zaraitzu, Lapurdi edo Nafarroa Beherekoekin lihoake? Galdera anitz eta zail xamarrak dira erantzuten, bistan da; baina azterketa dialektologiko diakronikoek bidea argitzen lagun dezakete.

Aipamenak

- Aldai, Gontzal. 1999. «Hegoaldeko Goinafarrera zaharra: aditz laguntzaileekiko ezaugarri zenbait». *FLV* 81, 263-274.
- Bonaparte, Louis Luciene. 1867. *Observations sur le formulaire de prône conservé naguère dans l'église d'Arbonne*. Lamoignon, Baiona.
- Bonaparte, Louis Luciene. 1869. *Le verbe basque en tableaux*. Londres. [Berrarg. in Bonaparte, L.L. 1991. *Opera omnia vasconice I*. Bilbo: Euskaltzaindia. 175-442.
- Camino, Iñaki. 2003. «Hego-nafarreraren egituraz». *FLV* 94, 427-468.
- Camino, Iñaki. 2004. *Hego-nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Camino, Iñaki. 2008. «Dialektologiaren alderdi kronologikoaz». *FLV* 108, 209-247.
- Camino, Iñaki. 2009. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- Camino, Iñaki. 2011. «Ekialdeko euskararen iraganaz». In Epelde, (arg.), 87-153.
- Camino, Iñaki. 2013. «Euskalkien historiaz: Lapurdi eta Nafarroa Garaia». In Gómez et al (arg.), 77-140.
- Epelde, Irantzu (arg.), 2011. *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. Bilbo: UPV/EHU.
- Gómez, Ricardo, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra, & Céline Mounole (arg.). 2013. *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra-III Congreso de la Cátedra Luis Michelena-3rd Conference of the Luis Michelena Chair*. Gasteiz: UPV/EHU.
- Kerejeta, Mari Jose. 1991. «Notas sobre las poesías premiadas en Pamplona en 1609 y 1610». In J. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriare L. Mitxelena magistri sacrum*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 161-183.
- Knörr, Enrike. 1992. «Un sermon de Martín Joseph Marcotegui, de Goñi, predicado en Ollon (1777)». In *Luis Villasanteri omendaldia*, Iker 6, Bilbo: Euskaltzaindia. 223-242.
- Lakarra, Joseba. 1983. «Oharrak zenbait arkaismoz». *ASJU* XVII, 41-68.

- Lakarra, Joseba. 2011. «Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz». In Epelde (arg.), 155-241.
- Lecuona, Manuel. 1973. «Textos vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella». *FLV* 15, 369-390.
- Lizarraga Elkanokoa, Joakin. 1802 [1990]. *Urteko igande guzietarako prediku laburrak*. Edizio kritikoa Frantzisko Ondarrak paratua. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lizarraga Elkanokoa, Joakin. 1983. *Koplak*, Edizio kritikoa Juan Apecechea Perurenak paratua. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Maiores Mendia, Fernando. 2011. *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases*. Artaxona.
- Mitxelena, Koldo. 1961 [1990]. *Fonética histórica vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Ondarra, Francisco. 1981. «Primer sermón en vascuence navarro (1729)». *FLV* 38, 147-173.
- Ondarra, Francisco. 1996. «Juan Martín de Ibero (1729-1783), Izuko parrokuaren testuak (I)». *ASJU* XXX-1, 645-702.
- Reguero, Urtzi. 2013. «Euskararen dialektalizazioaren hastapenak: konbergentzia eta dibergentzia prozesuak Erdi Aroan». In Gómez et al (arg.). 431-444.
- Salaberri, Patxi. 1994. «Elizalderen *Apezendaco doctrina christiana uscaraz*». *FLV* 65, 1-40.
- Salaberri, Patxi. 1996. «Amenduxen olerkiaz: oharrak». *FLV* 71, 87-98.
- Satrustegi, Jose M. 1987. *Euskal Testu Zaharrak I*. Iruñea: Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 1998. «Euskalkiak, gaur». *FLV* 78, 191-233.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.